

REVISTA DE
ESTUDIOS
DE JUVENTUD

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social
Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Infancia y Juventud



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

7 Septiembre

GAZTEMATIKA
Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema
Sistema de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa

01

Estión del riesgo


mesanotxean

Gazteak eta
arriskuaren kudeaketa

Haur eta gazteria politiken monografikoa 2009ko Urria

"Mesanotxean" izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen e-GAZTEMIRA buletin elektronikoaren monografikoen bilduma da. Bertan Gipuzkoako haur eta gazteria politikekin zerikusia duen gairen bat jorratzen da hiru hilabeteen behin.

Eginkizun horretarako, "Gazte faktoria berritzegunea" izeneko enpresaren laguntza teknikoa dugu "Mesanotxean" bildumaren edukiak prestatzeko orduan, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.



mesanotxean

mesanotxean 01

Izenburua: Gazteak eta arriskuaren kudeaketa

Egileak: Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gazte Faktoria: Joxe Jimenez eta Olatz Miranda (edukien laguntzailea)

Bilduma: Mesanotxean. Haur eta Gazteria politiken monografikoa

Bildumaren koordinazioa: Edorta Bergua (GFA) eta Joxe Jimenez (Gazte Faktoria)

Diseinua eta maketazioa: Gazte Faktoria Berritzegunea eta IPAR Komunikazio Grafikoa

Hizkuntz aholkularitza: Maramara Taldea

© Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaraldia: 2009ko Urria

Oinarrizko dokumentua:
Gazteak eta arriskuaren kudeaketa

orrialde 4/10

Oinarrizko dokumentua:

Gazteak eta arriskuaren kudeaketa

Gazte politikaren kontzeptuari begiratu historikoa ematen badiogu, berehala ikusiko dugu oinarritzko hitz batzuk agertzen direla beti: arriskua, jokabidea, prebentzioa... Hitz horiek erakusten digute gazteak arriskutik babesteko tresnak sortzera bideratu dugula geure jardunaren zati handi bat. Ildo horretatik, arriskua prebenitzeko, murrizteko edo ezabatzeko programak diseinatu, ezarri eta baloratu ditugu. Gaur egun, nolabaiteko segurtasun maila lortu dugunean, ikuspegi kritikoago batez begira diezaiokegu eremu horri, kanpotik. Eta onartutzat ematen genituen zenbait axioma kolokan jartzeko aukera daukagu. Izan ere, J. C. Ballesterosek dioen bezala, gazteen jarduera eta jokaera gehienetan baitago arriskua. Eta horrek agerian uzten du arriskua sozializatu egin dela: gazteek esperimentatzeko grina dute, bizitzan aurrera egiteko eta ikasteko ezinbesteko alderdi gisa.

Lan dinamikoa eta ausarta dugu hau, arriskuak Gazte Politikan duen zereginari ikuspuntu positiboago batez heldu nahi diona. Beldurra gaindituz eta esperientzia berriek dakartzaten aukerak gozatuz egin nahi dugu hori. Lau talde handitan bil ditzakegu “*Revista de Estudios de Juventud*” delakoa argitaratutako: “*Gazteak eta arriskuaren kudeaketa*”: <http://www.gipuzkoagazteria.net/admingazteria/dokumentuak/Jovenes%20y%20gesti%C3%B3n%20del%20riesgo%2002-04-2009.pdf>, monografikoa osatzen duten hamar artikulua. Lehenengoak (lehen eta bigarren artikulua) arriskuari buruzko eztabaida sustatu nahi du. Bigarrenak (hirugarren, laugarren eta bosgarren artikulua) protagonistez eta arriskua ulertzeko duten moduez dihardu: zenbateko ezberdintasuna dagoen generoen artean hura kudeatzeko orduan, eta arriskuaren sozializazioan esperimentazioak duen garrantzia. Hirugarren taldean (seigarren, zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren artikulua), arriskuaren lau esperimentazio eta kudeaketa testuinguru aztertuko ditugu: teknologia berriak, ekintzailtza, nazioarteko lankidetzak eta hezkuntza sistema. Azken artikuluan, Jesús Garcíak gazte politiken etorkizunari begiratu nahi dio, arriskuaren aurrean gehiegi babesteko joera baztertzeko eta aukerak kudeatuz autonomia pertsonala sustatzeko.

Oso kontzeptu, ideia, zalantza eta proposamen interesgarriak topatuko ditugu hamar artikuluetan, guztiz lagungarriak gazteen hezitzaile, teknikari, arduradun politiko edo ikertzaile garenontzat, geure eguneroko zereginaren ikuspuntua birplantea dezagun. Artikuluetan bat hautatzea zaila den arren, Jesús García Verdugoren azkenaren alde egin dugu «*Juventud y riesgos, una mirada hacia el futuro / Gazteak eta arriskuak etorkizunari begira*», nabarmen laguntzen digulako gazte politiken diseinuan ildo estrategikoak ezartzen. Dena dela, monografiko osoaren ideia orokor bat izan dezazuen, infograma bat duzue hemen, dokumentuaren aurkibidea jasotzen duen tresna grafikoa.

1. García Verdugo, Jesús. *Juventud y riesgos. Una mirada al futuro*. Revista de Estudios de Juventud [linean]. 2008. 82,173-188. <<http://www.injuve.es/contenidos.item.action?id=1520418523&menuId=1223021499>> [kontsulta: 2009ko Urriaren 22a] ISSN: 0211-4364

AURKIBIDEA: Gazteak eta arriskuaren kudeaketa

“ESTUDIOS DE JUVENTUD” ALDIZKARIA (INJUVE)- 82 Zkia, 2008/ Iraila

1.- Arriskua eta gizartea. Arriskuaren nondik norakoak. Elena Rodríguez San Julián.

- Arriskuak badu alde argitsu bat “eguzkiaren aldea”, pertsonak eta gizartea aldatzeko motor lanak egiten dituen. Badu alde ilunik ere “ilargiaren aldea”, arriskuak saihestera garamatzana.

2.- Arriskuaren ikuspegi okerrak. Susana Méndez Gago.

- «Zenbat eta gehiago eduki, orduan eta gehiago nahi izaten dugu; eta, batez ere, hura galtzeko orduan eta beldur handiagoa izaten dugu...». Hortaz, segurtasuna da merkatutekniaren helburu nagusia. Beldurrez bizitzeak ahuldu egiten gaitu, arriskurik ez hartzera garamatza, eta segurtasunarekin lotutako edozein proposamen berehala onartzera eramaten gaitu.

3.- Normaltasunaren kontzeptua, gazteekin lotutako arriskuen eta aukeren kudeaketan Ignacio Megías Quirós

- Gizarteak gazteen artean «normala» behar duenari buruzko estereotipoak sortzen ditu, eta gazteek beren egin eta berretsi egiten dituzte eredu horiek, kulturak homogeneizatzeko dinamika jakin batzuen bitartez. Eta komunikabide, informazio iturri eta botere gune nagusiek estereotipo horiek bildu, indartu eta instituzionalizatu egiten dituzte.

4.- Arriskua eta aukeren kudeaketa generoaren ikuspegitik. Mar Morollón Pardo

- Kultura gehienetan, ausardia balio positiboa da bai gizonentzat, bai emakumeentzat. Baina jokabide berek ez dute balorazio positibo bera izaten bi sexuetan. Ildo beretik, mutilen kasuan koldartzat hartutako zenbait portaera zuhurtziaren seinale izaten dira askotan neskenean.

5.- Arriskua, gaztetasuna eta sozializazio esperientziak. Juan Carlos Ballesteros

- Gazteen ekintza eta portaera gehienetan, inguruan izaten da arriskua. Baina aisialdiko arriskuaren ikuspegia (sexualitatea, drogak, gidatzea...) iritzi subjektiboekin lotuta dagoenez, aldakorra izaten da arrisku onargarriaren muga.

6. - Gazteak arriskuan ala gazte arrikutsuak? Alarmak eta garapenaren teknologia sozialak eta gobernu digitala. Ángel J. Gordo López

- Teknologia berriek haurtzaroari eta nerabezaroari nolako kaltea egiten dioten aztertzen du; hots, helduek, unibertso horrekiko beldurrak bultzatuta, zer proiektio mota egiten dituzten gazteekiko.

7.- Gazte ekintzaileak aukeraren bila. Mercedes García Ruiz

- Gure gizartea etengabeko aldaketan murgilduta bizi da. Gazteentzako aukera berriak sortzen dira, baita ekintzaile sozialen ezaugarriak eta bereizgarriak dituzten gizon-emakumeak ere.

8.- Arriskua, garapena eta nazioarteko lankidetzaren bi aldeetako ikuspegiak konparatuz. Alejandra Boni de Aristizabal y Eva Adam Picazo

- Nazioarteko lankidetzaren eta garapenaren arloan arriskua nola ikusten duten aztertuko dugu.

9.- Arriskua hezkuntza sisteman. Irakurketak, diagnostikoa eta babesak. Jaume Carbonell Sebarroja

- Adierazle ezagunenetako bat eskola porrota da; hainbat interpretazio eta egoera biltzen ditu kontzeptu zabal horrek.

10.- Gazteak eta arriskuak etorkizunari begira. Jesús García Verdugo.

- Gazte izatea eta administrazio publikoek edo gizarte erakundeek gazteekin egin dezaketen lana desmitifikatzeko zenbait lerro planteatzen ditu.

GAZTEAK ETA ARRISKUAK ETORKIZUNARI BEGIRA

Artikulu honetan, helduek gazteei begira duten diskurtso kontraesankorrari buruzko gogoeta kritikoa egin du Jesús García Verdugok. Batetik, goraipatu egiten dute gaztetasuna, egoera ideala balitz bezala; bestetik, baina, gaitzetsi egiten dituzte gazteentzat eta oro har gizarte osoarentzat arriskutsuak diren zenbait portaera edo jokabide.

Artikuluaren bidez, «gaztaro» izendatzen dugun etapa iragankor hau gainditzeko eman beharreko urratsen berri ematen digu egileak. Honako hau proposatzen digu: arriskua saihestu nahi duen gehiegizko babesa alboratzea, autonomia pertsonala sustatzea eta beste agertoki batera salto egitea. Hots, gazteentzako aukerak kudeatzen dituen politika lantzea.

Etorkizunari begira, itxi egin beharko genuke gazteak ume bihurtzen dituen gehiegizko babesaren atea, ondorengo lau ateak ireki ahal izateko: lehenik, autonomia sustatzea; bigarrenik, arriskua kudeatzea; hirugarrenik, aukerak kudeatzea; eta, azkenik, aukerak kudeatzen dituzten programen atea zabaltzea.

Jesús Garcíak gazte politikak berritzeko proposatutako ildoetan sakontzeko ahalegina egingo dugu ondorengo lerroetan. Hamar bide zabalduko dizkizuegu, gazteriaren arloko eragile zaretenok haiei erreparatzeko gazteriar buruzko zerbitzuak eta programak diseinatzerakoan, proposatzerakoan eta baloratzerakoan. Artikulu honen edukia aurkezteko metodorik egokiena, jatorrizko testuaren zatiak hamar atal laburretan biltzea iruditu zaigu.

Gazteak ume bihurtzen dituen gehiegizko babesa

1.- Osasuna zaintzeko soka prebentiboa. Mitifikatu egin da hainbat arrisku prebenitzeko orduan izan ditzakeen emaitzengatik: sexualitate goiztiar eta programatu gabea saihestea; gazteak substantzia jakin batzuen kontsumotik urruntzea; harreman pertsonal eta sozialetan, hezkuntza sisteman edo lehendabiziko lanetan izandako arrakastek eta porrotek eragindako frustrazioaren aurrean gehiegi babestea... Sozializazio prozesua urra dezaketen alderdi guzti-guztiak kontrolatu nahi izateak frustrazioa eragin diezaieke helduei helburu handiegiak finkatuz gero.

2.- Errealitateari egokitzen ez zaion irudipena. Gazteei, helduek ezarritako arauak betetzen ez dituzten neurrian, irudi negatiboa ematen zaie berehala. Gizarteak gazteei buruz duten ikuspegiaren sekulako eragina daukate komunikabideek; inoiz baino handiagoa. Azkenetarako, espero bezala jokatzeko dute gazteek, edozein gizartek saihestu nahiko lituzkeen jokabideak hartuz (xenofobia, matxismoa...). Izan ere, eragile berriak sekulako eragina baitu gaur egun eta, era ofizialean ez bada ere, gainontzeko guztiak ordezkatu ditu (familia, eskola...).

Autonomia bultzatzea

3.- Gazteen beharrak. Gizarte tradizionaletan, muga txikiagoak zituen munduak. Errazagoa zen inguruko arriskuak kontrolpean izatea. Gaur egungo gizartean, aldiz, batik bat komunikazioen eremuan izandako garapen teknologikoak aldarazi egin digute errealitatearen pertzepzioa. Ziurrak ziren alderdiak auzitan jarri dira orain. Belaunaldi batek ondorengoari ematen dizkion tresnei ezin zaie, beraz, balio absoluturik eman.

4.- Aniztasuna. Ez dago Gazteria bakar batez hitz egiterik, mota guztietako egoerak, errealitateak eta beharrak izaten dira-eta. Eta ez bizilekuaren arabera bakarrik; garai batean oinarritzeko aldagaia zen hura, baina gaur egun beste batzuk ere badira. Gerta daiteke geografikoki oso urrun dauden gazteak euren ezaugarrietan bat etortzea, eta adin bereko ingurukoekin, aldiz, identifikazio txikia izatea. Horregatik, helduek, konfiantza izateaz gain, lagundu egin behar dute emozioen eremuan, eta ez dute pentsatu behar beraiek izandako baldintzak eta gaur egungoak berberak direnik eta garai hartan balio zuten tresnek oraingo gazteentzat baliagarriak izan behar dutenik.

5.- Erabakitzeke autonomia izatea eta erabaki egokiak hartzea. Horretarako, gaitasun sozial sendoak eman behar zaizkio gazteari, eta bere autoestimua indartu behar da. Arriskuak nork bere gain har ditzan, askatasuna eta erabakimena behar dira lehenik eta behin, baita ezagutza arrazionala ere, erabaki bat hartzeak orainaldian zein etorkizunean sor ditzakeen kostuak eta onurak kalkulatzeko. Funtsezkoa da gazteak gaitasun hori izatea, ondorioak neurtzen jakitea eta ondorio horiek autonomiaz baliatzean sortutakoak direla ulertzea.

Diskurtso konstruktiboa eta aukeren kudeaketa

6.- Elkarriketa gardena eta negoziazioa. Benetako edozein arazo konpontzeko, egiaren bidetik heltzea da egokiena, gazteek ez baitituzte politikoki zuzena denaren komunikazio kodeak erabiltzen. Informazioan eta komunikazioan gardentasuna bultzatuz gero, erantzun hobea jasoko dugu eta egoera bakoitzaren mugak errazago adostuko ditugu. Horregatik, garrantzi handia du konfiantzan oinarritutako elkarriketa etengabea izateak eta aurreiritzien arabera ez jokatzek. Elkarriketak irekia behar du izan; arrazionaltasunaren mugetan dagoen edozer emaitza dialektiko jasotzeko prest egon beharra dago; ezin du, beraz, adostasun itxurarekin irtenbide jakin bat inposatzeko bitarteko edo aitzakia izan. Negoziazioa alde ahula gaztea da, eta arauak inposatuz gero, ez da inongo bermerik izango bere egin eta beteko dituenik pentsatzeko.

Aukerak kudeatzeko programa

7.- Inbertsioaren eredu ideala. Baliabideak mugatuta ditugunean, inbertsioak balira bezala ikusi beharko genituzke programa hauek, eta horren arabera diseinatu, pertsonarentzat zein gizartearentzat kaltegarriak diren ekintzen ondorioak murrizteko duten ahalmena nabarmenduta. Inbertsioak herrialde osoarentzat izango luke errentagarritasuna; izan ere, «inbertsio idealak pertsonen bizitzaren hasieran inbertitzen baitu, aurrerago horrenbeste inbertitu beharrik ez izateko». Programek jaiotzatik bertatik egin behar dute lan gazteekin. Kontuan hartu behar dugu zenbait arlotan berandu izan daitekeela 12 edo 14 urteko pertsonengan eragitea, lehentasunak eta jokabideak txikitan zehazten dira-eta.

8.- Parte hartzea. Horregatik, gazteen partaidetzan oinarrituta kudeatu behar dira aukerak; izan ere, politika eta programa askok hartutako norabidearen arabera, arrakasta handiagoaz edo txikiagoaz garatu ahal izango baitute gazteek beren bizi proiektua. Gazteentzako politiketan aurrerapausoak ematen ari garen arren, maiz, eskatu ez dituzten esku-hartzeen hartzaile hutsak izaten dira gazteak, eta, mesfidati, urrundu baino ez dira egiten laguntzeko xedea zuten administrazio publiko eta gizarte erakundeetatik.

Aukerak kudeatzeko programa

9.- Plangintza global eta estrategikoa. Alde horretatik, gazteen unean uneko beharrak kontuan hartuko dituzten plangintza global eta estrategikoak behar ditugu, arriskuak murrizteko eta testuinguruak eskainitako aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Horretarako, aztertu egin behar ditugu joerak, gazteen iritzia entzun eta haiekin etengabe lanean ari diren profesionalen ikuspegia ezagutu.

10.- Agenda publikoa. Gazteentzako planek eta programek arrakasta izan dezaten, eta zereginak, funtzioak eta ardurak beste modu batez bana daitezen, nahitaezkoa da lanean ari diren eragile guztiek konpromiso politiko indartsua hartzea. Askotan esan izan da gazte politikak ez duela lehentasunik agenda publikoan. Dena dela, gazte politika izenpean zer aurkezten den, aldatu egingo da hori. Ez dugu ahaztu behar gizarte ororentzat beti izango dela garrantzitsua ordura arte metatutako lanari eta ezagutzei ondorengo belaunaldiak ahalik eta etekin handiena atera ahal izatea.

mesanotxean bilduma

01. Gazteak eta arriskuaren kudeaketa.



Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Infancia y Juventud



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa